

JAKIN azalik azal

Aldizkariak aurpegi oso desberdinak izan ditu historian zehar. Zuzendari ugari eta proiektu (eta asmo) gehiagoren seinale. Tituluaren grafiatik azal-orriaren taxueraraino aldatu dugu.

Aldakuntzarik nagusitxoena zenbait puntutan bil ditzakegu:

1. Hasierako formulak, aldaketa txiki batzurekin, lau urte eta gehiago iraun zuen; 13 zenbaki denetara.

Lehen 3 azalak kolore oriz atera genituen, eta gainerako denak urdinez, marrazki fin batez dotoretuak.

Y-rekin idazten genuen aldizkariaren izena bera: YAKIN.

Baina, agian, aldakuntzarik seinalagarrienak eta esanguratsuenak azpitoluen mailakoak dira: lehen 10 zenbakietako «Teologarien Yardunak», II.etik aurrera «Kultura Jardunak» bilakatzen dira, juxtu *Jakin-en* Zuzendaritzan belaunaldi berria sartzen denean.

2. Litografia utzi eta tipografian azaltzen da 1961ean *Jakin*. 14. zenbaki honetan hasi eta 1965eko 20. zenbakirarte, azalaren taxuera bera erabiliko dugu. Argazki batek betetzen du azal osoa; eta gainean, aldizkariaren izena (J-rekin orain) eta azpitolu gisa: «Euskal-gaztedia kultura bideetan».

3. 1966an argazkiak baztettu egiten ditugu. Xabier Egañaren marrazkiekin iraungo dugu bi urtetan, urtero ezberdina eta zenbakiero kolorez aldatua.

Tituluaren moldea ere aldatu egiten dugu, bi aldiz gainera. «Euskal-gaztedia kultura bideetan» slogana barnera pasatzen da. Azpitolu gisa, azalean, «10 urte» agertuko da 1966an (jaiotzatiko 10 urte bait dira) eta

1967an artikulua nagusien izenburuak ematen ditugu batzutan eta ezer ez bestetan.

4. 1968an osoki aldatzen dugu azala (neurria salbu, eta berau ere pittin bat). *Esprit* aldizkariaren eredia hartzen dugu. Arestian alboratutako «Euskal-gaztedia kultura bideetan» azpтитulua ezarti egiten dugu atzera (eta hurrengo zenbakian —30.ean— berriz kenduko). Edukinaren berriemateak betetzen du ia azala. Aldizkariaren identifikazio-seinaleak ere azalean bertan ematen ditugu.

4. 1977an beste aldaketa, hau ere erabatekoa. Atras berria da azala egituraz, tituluz eta konposaketaz. Zenbakiero aldatzen dugu kolorea. Azpтитulutik ez dugu. Barneko artikuluen berri ematen dugu, tituluz eta (satri) autorez.

6. Aurreko formularekin 4 urte iraun ondoren *Jakin*-in 25. urtea ospatzen genuela eta egokia iruditu zitzaigun itxura aldatzea. Indar gehiagoko azal bat bilatzen genuen. Marrazkia ez beste elementuek lehen bezalatsu jarraitzen dute.

Aldizkariaren luze-zabalak

Lau tamainu izan ditu *Jakin* aldizkariak:

<i>Vrteak</i>	<i>Zenbakiak</i>	<i>Neurriak zm.tan</i>
1956	1	25,5 x 20,5
1956-1960	2-13	24,5 x 17
1961-1969	14-35	19 x 14
1977-1981	1-21	21 x 14

Luze-zabalean handiena, eta iraupenean motzena, lehenbizikoa izan da, zenbaki bakarra. Denboraz luzeena 1961etik 1969ra bitarteko hori gertatu da, nahiz eta, egia esan, bi azpi-aldi bezala egon hor bertan aldizkariaren zabaleroan: 1967ra arte 14 zm.ko zabaleroa du, eta gerora, *Esprit* aldizkariaren fотmulan, 13,5eko.